

LAB ETA STEE-EILAS SINDIKATUEK LEGEBILTZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK TXALOTZEN DITUZTE, NAHIZ ETA URRATSAK EMATEN JARRAITU BEHAR DEN

LAB eta STEE-EILAS sindikatuek azkenengo asteetan alderdi politikoekin egindako bilkurekin lehengo fruituak ikusten hasi direla azpimarratu behar dugu. Atzo, EH Bilduk eta PSEk adostutako proposamena aurrera atera zen PPK baiezko bozkarekin, EAJ abstenitu zen arren.

Proposamen horrekin, Legebiltzarrak Haurreskolak Partzuergoari eta Hezkuntza Sailari eskatzen die matrikulazioa irizpideak egokitzea. Zentzu horretan, kuotak familien diru sarreren eta ordutegi araberako tartetara egokitu beharko dira, eta tarteko kuota bat sortuko da ordutegi tramu berri batekin. LAB eta STEE-EILASEk proposatu duten bezala, goiko kuota muga bezala ezarri da.

Ez dugu ulertzen EAJren abstentzioa, azken finean, Cristina Uriartek familien diru sarreren inguruan ordaintzearen aukera aztertuko zela iragarri zuen eta atzoko proposamenarekin bide horretan sakontzeko aukera zabaltzen da.

LAB eta STEE-EILASen irakurketa positiboa egin arren hauek dira azpimarratu nahi ditugun puntuak:

1. Alderdi politiko guztiek onartu dute Haurreskolak Partzuergoko proiekturen inguruan urratsak eman behar direla, familiek ordaintzen duten kuota oso garestia delako.
2. Argi geratu da borondatea baldin badago adostasunetara ailegatzea posiblea dela, Ziklo honen aitortza oso garrantzitsua izan da. Hezkuntza eskubide unibertsala den heinean hausnarketa egin beharko genuke ziklo honen geroa hurbilena Hezkuntza Sailaren barruan kokatu beharko litzaketelako.
3. Hemendik aurrera, lanean jarraitzeko konpromisoa mahaigaineratu dugu, adostutakoa betetzeko, Haurreskolak Partzuergoko zuzendaritza Batzordeak hartutako neurriak gauzatzeko eta Eusko Jaurlaritzak behar den finantziario nahikoa aurrekontuetan isla izateko.



HAURRESKOLAK PARTZUERGOA KALITATEKOA, PUBLIKOA, DOAKOA, UNIBERTSALA, EUSKALDUNA ETA LAIKOA!!!

LAB-STEE-EILAS---LAB-STEE-EILAS---LAB-STEE-EILAS---LAB-STEE-EILAS---LAB-STEE-EILAS